

ehbildu

Zarautz

HAZ	 ZARAUZKO UDALA	SARRERA
	2019 URT. 28	
Zk		

Neguetxea

2015-2017-ko Gipuzkoaren Gizarte Zerbitzuetako Maparen helburu nagusia da udalak, eskualdeak eta lurraldeak mugapen geografiko homogeneo eta egokitan banatzea edota biltzea, gertutasunaren ikuspegitik, EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan zehaztu diren zerbitzuak emateko populazio irizpideen arabera. Mapa honen asmoa erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazioa bultzatzea da.

Zerbitzu horien artean Zarauzko Udalak ematen zuen Neguetxearen zerbitzua dago, garbi adieraziz zerbitzu horren eskumena eskualdeari dagokiola. Hau guztia jakina zen gutxienez 2015eko maiatzetik. Uler genezake mapan zehazten denera egokitzeko prozedurak bere denbora eskatzen duela. Egoera horretaz jakitun izanik Zarauzko Udaletik Neguetxearen zerbitzua kudeatzen jarraitzea babestu izan du EH Bilduk, argi genuelako gizarte zerbitzuetako mapa horren asmoa erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazioa izan behar zuela, beharra duten herritarren mesedetarako.


Pasa berri den urtearen hasieran, martxoa eta apirila bitartean, Neguetxe zerbitzuaren kontratua amaitu zen. Udalak ez du plegu berririk atera zerbitzua ematen jarraitzeko eta eskualdea ez da egokitu zerbitzu hori eta dagozkion beste ainbat abian jartzeko.

Egoera horren aurrean, aurreikuspen eta borondate falta nabarmena agerian gelditzen da. Gizarte Zerbitzuetako arduradun politikoa den Gloria Vazquezek prentsan egindako adierazpenak ez dira inolaz ere onargarriak. Bertan, beste administrazio bati pasa nahi izan dio ardura, hain justu, bere lana koordinatzea eta lankidetzan aritzea izan beharko lukeenean.

Bestalde, EH Bildu udal taldeak salatu nahi du prentsaren bidez jaso behar izan duela Neguetxearen inguruan daukan informazio urria. Hala ere, uste dugu oraindik garaiz gaudela, datozen asteetarako Neguetxearen zerbitzua eskaini ahal izateko, horretarako borondate politikoa baldin badago behintzat.

MOZIOA:

Zarauzko Udalbatzarrak datozen asteetako eguraldiaren gogortasunari egoki erantzun ahal izateko Neguetxearen zerbitzua urgentziaz martxan jar dezala eskatzen dio udal gobernuari.



Mikel Goenaga Gubia



Egiaztapen Kode Segurua / Código Seguro de Verificación: **SIERbf98a097-2f14-4c86-8f4f-af862599e71d**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07910>**